

# ELBURGO / BURGELU

– ARABA / ÁLAVA –

Burgelu udalerria Aguraingo koadrilaren barruan dago. Gasteiztik joateko, ia 12 km egin behar dira, N-104 errepidetik Elorriaga, Arkaute eta Ilarratza zeharkatuz. Azken herri hori igaro ondoren, eskuintzerantz jo, eta Dulantzira doan A-3110 errepidetik helduko gara herrira.

Burgelu oso antzina eratu ei zen. *Reja* deritzon dokumentuan *Burguellu* esaten zaio, eta *Garonnak* –gaur, inor bizi ez den Garaona izenekoak– bezala, bi hesi-burdina ordaintzen zizkion Donemiliagako monasterioari, biak ere *Hiraszaeza* zeritzon barrutiaren baitan zeudela. 1337an, Alfontso XI.ak hiribildu titulua eman zion, Gazeta, Argomaiz, Arrarain, Kiltxano, Garaona, Añua, Arburu eta Ixona anexionatuz. Egitate horren ondorioz, herrixka horietako batzuk jenderik gabe geratu ziren, berrietako bizilagunak hiribildu berrira joatean.

Es un municipio con ayuntamiento propio que pertenece a la Cuadrilla de Salvatierra. Desde Vitoria, situada a casi 12 km, el acceso se realiza por la N-104 atravesando Elorriaga, Arkaute e Ilárraza. Tras esta población, tomando a la derecha el desvío por la A-3110 en dirección a Alegría-Dulantzi, se llega al pueblo.

Se le supone un origen muy antiguo. En el documento de la Reja se le llama *Burguellu*, y junto a *Garonna*, el actual despoblado de Garaona, pagaba dos rejas a San Millán, ambos integrados en el Alfoz de Hiraszaeza. En 1337 el rey Alfonso XI le otorga el título de Villa anexionándole los lugares de Gazeta, Argomaniz, Arrarain, Quilchano, Garaona, Añua, Arbulo e Hijona, lo que provocará que algunas de estas aldeas queden despobladas al acudir sus vecinos a vivir a la nueva villa.

## *Arraraingo San Joan baseliza Ermita de San Juan de Arrarain*

**B**URGELU HERRIAREN ALDIRIETAN dagoen Arrarain eremua herrigune zen garaiko parrokia izandakoa dugu ermita hau. Bertara heltzeko, A-3110 errepidea hartu eta, herrian sartu gabe, ezkerrera, antzinako errotara doan irteera dago, bai eta ibaiaren gainetik igaro eta zuzenean baselizara daraman auzo-bidea ere. Gaur egun, antzinako baseliza hilerriko kapera da. *Reja* dokumentuan, *Hararibini* izenez aipatzen da, Donemiliagako monasterioari hesi-burdina bat ordaintzen ziola zehaztuz. Burgeluri anexionatzean gelditu zen biztanlerik gabe.

Eraikin erromanikotik, abside erdizirkularrak eta presbiterioak dira, ondo ebakitako silarriz egindakoak, biak ere. Eraikuntzaren gainerakoa –nabea, portada eta zurezko estalkia– XVIII. mendekoa da. Oso eraikin txikia da, baina oso apaindura aberatsakoa, eta inguru eder batean dago. Absidea labe-gangaz estalita dago, eta presbiterioa, berri, kanoi-gangaz. Garaipen-arkua erdi-puntukoa da, eta apaindura geometrikoko inpostaz elkarri atxikiriko zutabe erdi bana duten bi pilastratan dago bermaturik. Ezkerreko kapitela erakusten duen irudiak zabalik dauzka hegoak, beste bi giza bustori estalpea emanez, bustoon albo bakoi-

**S**E TRATA DE LA ANTIGUA PARROQUIA del despoblado de Arrarain, o Arrayn, situado a las afueras de Elburgo. Para acceder hasta allí se toma la A-3110 y, sin entrar en el pueblo, a la izquierda, hay una salida que conduce al antiguo molino, con un camino vecinal que pasa sobre el río y llega directamente a la ermita. Hoy es la capilla de un cementerio. En el documento de la Reja aparece mencionado este lugar como *Hararibini*, y pagaba una reja al monasterio riojano. Se despobló al anexionarse a Elburgo.

Del edificio románico se conserva el ábside semicircular y el presbiterio, ambos realizados en sillaría bien cortada. El resto de la construcción –la nave, la portada y la cubierta de madera– datan del siglo XVIII. Es un edificio de dimensiones muy reducidas pero de gran riqueza decorativa, enclavado en un bello paraje. El ábside se cubre con bóveda de horno, mientras que el presbiterio lo hace con bóveda de cañón. El arco triunfal es de medio punto y se apoya en dos pilastras con sendas medias columnas adosadas con imposta con decoración geométrica. El capitel de la izquierda muestra una figura con alas desplegadas que

tzean ageri diren pertsonaiek hegoak zabaltzen laguntzen diotelarik. Eskuinekoan, gorantz eta beherantz txandaka antolaturik dauden eta ebakiguneak dituzten motibo triangeluarrak ikusten dira, bai eta abako bat ere, sareta bat osatzen duen zizelkadura hondoratuzkoa.

Absidearen erdian, puntu-erdiko leiho txarabeldu bat dago, ertz biziko arkibolta bat duena. Inposta bi aldeetan ezarririko zutabe banatan dago oinarriturik: zutabeok fuste lisoak, apaindura geometrikoko harroinak eta kapitel irudizatuak dituzte. Ezkerreko saskian, orpoetarainoko jantziak eta besoak zabalik dauzkan eliz gizon bat ageri da, eta horren ondoan, suge baten eraso jasaten ari den pertsonaia bat. Presbiterioaren iparraldeko eta hegoaldeko hormetan, bi hobi daude, eta hegoaldekoaren gainean, gezi-leiho txiki bat.

Kanpoaldean, burualdea harrizko hilobien hondarren gainean dago ezarririk. Absideko leihateak ere molduradun arkibolta bakarra du, bai eta inposta, soka-itxuraz apainduriko harroinak eta kapitel dekoratuak ere. Ezkerreko kapitelak bilauen arteko borrokaldi bat agertzen du, hirugarren pertsonaia bat, kanpoko aldean, hari begira dagoela; barruko aldean, berriz, lau hankako animalia bat


cobija a otros dos bustos humanos, mientras que un personaje a cada lado ayuda a abrir sus alas. En el de la derecha se ven motivos triangulares con incisiones, dispuestos alternativamente hacia arriba y hacia abajo, y un ábaco con talla rehundida formando una rejilla.

En el centro del ábside se abre una ventana abocinada de medio punto con una arquivolta en arista viva, e imposta sobre una columna a cada lado de fuste liso, basas con decoración geométrica y capiteles historiados. En la cesta de la izquierda aparece un eclesiástico con vestiduras talaras y los brazos extendidos, y junto a él un personaje atacado por una serpiente. En el capitel de la derecha se repite el tema del personaje alado cobijando a otros. En los muros norte y sur del presbiterio se abren sendos nichos, y sobre el meridional se dispone una pequeña saetera.

En el exterior la cabecera se asienta sobre restos de sepulcros de piedra. El ventanal del ábside presenta de nuevo una única arquivolta moldurada, imposta y un par de columnas con basas sogueadas y capiteles decorados. El izquierdo, muestra una lucha de villanos, mientras que una tercera figura, en el lado exterior, mira la escena, y en la cara interior hay un cuadrúpedo; en el capitel derecho


*Ikuspegi orokorra / Vista general*





*Oinplanoa / Planta*

*Ebaketa luzetara / Sección longitudinal*





*Absidea*

*Ábside*



*Absideko leihoa*

*Ventana del ábside*



*Absideko harburuak*  
*Canecillos del ábside*



*Barrualdea.*  
*Absideko leihoa*  
*Interior.*  
*Ventana del ábside*

dago. Eskuineko kapitolean eta barruko aldean, jantzi luzeak daramatzaten hiru pertsonaia ikusten dira, ibiltzeko jarreran. Horien ondoan, Erdi Aroko prozesio-gurutze bat dago, eta horren aurrean pausaturik, kanpoaldean jada, bi hegazti.

Arrarainen, harburutxo-talde bitxi bat azaltzen da, teilatu-hegalaren azpian. Hegoaldetik hasita eta absidea inguratuz, honako hauek ageri dira: upel bat; ahutzak irekirik eta mihi luzea dituen basapiztiaren burua; hari eta arkuko tresna bat –ziurrenik, bihuela bat– jotzen ari den pertsonaia bizardun bat; punteatua dirudien instrumentu bat, *zanfonia* baten antzekoa, duen beste musikari bat; gero, hiru harburu liso daude, eta horien ondoren, elementu bertikal bat, goiko aldea galdu duena; gurutze bat; xake-apaindura; ildaska bertikalak; beste harburu liso bat, eta, hilerriaren esparruan jada, iparraldera, ezpata altxatuta eta ezkutua dauzkan armagizon bat, eta eskuineko goiko izkinan hosto-apaingarri txiki bat duen harburu liso bat.

Elementu horiek guztiek, arkaismo-joerako estilokoek –Burgosko Quintanilla de las Viñas herrikoaren moduko eraikin prerromaniko edo bisigotikoen eraginekin lotu izan dira– XII. mendearen amaieran kokarazten dute Arraraingo ermita honen data. Hortaz, Lautadako eraikin erromanikorik zaharrenetako bat dela esan dezakegu.

Testua eta argazkiak: REA - Planoak: LGS

y en la cara interior se representan tres figuras con largas vestiduras y en actitud de caminar. Junto a ellas una cruz procesional medieval, y dos aves –ya en el exterior– posadas ante ella.

En Arrarain se encuentra un curioso grupo de canci-llos bajo el alero del tejado. Desde el lado sur y rodeando el ábside se ven: un tonel; una cabeza de fiera con las fauces abiertas y larga lengua; un personaje con barba ta-ñendo un instrumento de cuerda y arco, posiblemente una vihuela de arco; otro músico con un instrumento que parece punteado, como una zanfoña; después hay tres canes lisos, y tras éstos un elemento vertical cuya parte superior se ha perdido; una cruz; decoración de ajedrezado; estrías verticales; otro can liso; y ya en la zona del cementerio, al norte, un guerrero con espada en alto y escudo; y can liso con una pequeña decoración de hojas en su esquina superior derecha.

Todos estos elementos, de ejecución arcaizante –que incluso se han relacionado con influencias de edificios prerrománicos o visigóticos, como Quintanilla de las Viñas por el capitel de la cruz procesional– hacen que esta ermita de Arrarain se feche a finales del siglo XII, por lo que se puede hablar de uno de los edificios románicos más antiguos de la Llanada.

Texto y fotos: REA - Planos: LGS

### Bibliografía / Bibliografía

CASTRO, C. de, 1915, p. 145, fig. 55; GÓMEZ GÓMEZ, A., 1998, pp. 78-79; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, p. 294; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J. y MARTÍNEZ DE SALINAS DE OCIO, F., 1988, p. 45; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J. y MARTÍNEZ DE SALINAS DE OCIO, F., 1990, p. 49; LÓPEZ DEL VALLADO, F., 1921b, p. 869; PORTILLA VITORIA, M. J., 1968, p. 70; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1975, pp. 361-362, fig. 508-514, 516-517; PORTILLA VITORIA, M. J., 1983, p. 46; PORTILLA VITORIA, M. J., 1991, pp. 16, 109-110.